



Nola egin Foru Ogasunarekiko euskarazko hizkuntza hautua

- **Errenta kanpainaren barruan**. Ogasunarekiko harreman hizkuntza euskara hautatzeaz eta aitortpena bera euskaraz betetzeaz gain, aukera interesgarria da norberaren datuak Aldundiari lagatzea baimentzea, Diputazio osoarekiko harreman hizkuntza euskara izan dadin.
 - **Errenta mekanizatuko bulegoan**. Zergadunak bere euskarazko hautua adierazten dio langile publikoari.
 - **Interneteko Zergabidea plataforman**. Errenta aitortpena betetzean, hizkuntza aukera egiten da: Datu pertsonalak > Administrazioarekin harremana izateko hizkuntza > Euskara.
 - **Gestorian**. Zergadunak bere euskarazko hautua adierazten dio gestoreari.
- **Urte osoan zehar**. Pertsona fisikoen **030 eredia** (edo pertsona juridikoen **036 eredia**) betetzean, euskarazko hautua markatzen da harreman hizkuntza moduan. 030 eredia Ogasuneko edozein bulegotan aurkeztu daiteke, edo Aldundiaren erregistro zentrolean (Donostiako Gipuzkoa plaza). Era berean, interneteko **Gipuzkoataria plataforman** ere harreman hizkuntza aukeratu daiteke, "Ogasuna eta Finantzak > Harremanetan jartzeko Ogasuneko datuak" atalean.

Aintzat hartzekoa da Foru Ogasunak autolikidazio proposamena herritarraren hizkuntza hautuaren arabera bidaltzen duela.